

Fonetika eta fonologia

1. GAIA: Sarrera – Oinarrizko zenbait kontzeptu

Euskal Ikasketak, 1. urtea
2021-2022


Egitura

1. Soinua eta segmentu motak
2. Fonemak
3. Fonologia eta fonetika
4. Ortografia, ikur fonetikoak, eta fonologikoak

Soinua (I)

- Zer da soinua? Uhina: partikulen mugimendua
- Gizakiok entzun dezakeguna: 20 Hz ~ 20 kHz

> 20 kHz



< 20 Hz



Soinua (II)

- Zer da ahoskatzea? Nola egiten ditugu guk soinuak? Eta komunikazio hotsak?

Hatsa, ahots-kordak, ahoa, sudurra > hotsa

<http://australianlinguistics.com/airstream-mechanisms/egressive-pulmonic/>

Soinua (III)

- Soinuek egitura akustiko jakina dute: maiztasun jakin bat eta garaiera jakin bat.
- Aldi berean, hizkuntzen soinuek bariazio ikaragarria dute ahoskatzetik ahoskatzera.
- Hizkuntzetako hotsak → Segmentuak

Segmentuak (I)

- Hizkuntzetako hotsak → Segmentuak
- **Segmentua**: komunikazio katean akustikoki edo hautematez identifikatu daitekeen unitate txikiena.
- Mota nagusiak:
 - Haizea bat ere eragozten ez dutenak: **bokalak**.
 - Gainerako hotsek modu ezberdinetan eragozten dute haizearen pasabidea: **kontsonanteak**.

Segmentuak (II)

- Segmentuak definitzeko parametroak:
 - **Ahosmoldea**: airea moldatzen duen mugimenduaren mota:
 - Herskari: airearen pasabidea guztiz eragozten du.
 - Sudurkari: airea (ahoaz gain) sudurretik ere igarotzen da.
 - Igurzkariak: azantza airea pasatzean, pasaia estutzeagatik.
 - Albokariak: airea aho bazterretatik pasatzen da.
 - Dardarkariak: dardara airea pasatzean.

Segmentuak (III)

- Segmentuak definitzeko parametroak:
 - **Ahoskunea.** Aireak moldatzen duen mugimendua non den:
 - Biezpainkariak
 - Horzkariak
 - Hobikariak
 - Sabaikariak
 - Belarrak
 - Ubularrak
 - Glotalak

Segmentuak (IV)


– Ahostuntasuna:

- Ahostuna: ahots korden mugimendua dago.
- Ahoskabea: ez dago mugimendurik.

– Airearen bidea: ahokaria/sudurkaria

- Ahokaria: airea ahotik ateratzen da
- Sudurkaria: airea sudurretik ere ateratzen da.

BOKALAK



Ikurrak binaka agertzen direnean, eskuinekoak bokal biribildua irudikatzen du.

Kontsonanteak (I)

KONTSONANTEAK (BIRIKARIAK)

© ⓘ ⓘ 2021 IPA

	Biezpain- kari	Ezpain- horzkari	Horzkari	Hobikari	Hobiosteko	Irauli	Sabaikari	Belar	Ubular	Faringal	Glotal
Leherkari	p b			t d		ʈ ɖ	c ɟ	k g	q ɢ		ʔ
Sudurkari	m	ɱ		n		ɳ	ɲ	ŋ	ɴ		
Dardarkari	ʙ			r					ʀ		
Ttak edo flap		ɸ		ɾ		ɽ					
Igurzkari	ɸ β	f v	θ ð	s z	ʃ ʒ	ʂ ʐ	ç ʝ	x ɣ	χ ʁ	ħ ʕ	h ɦ
Igurzkari albokari				ɬ ɮ							
Hurbilkari		ʋ		ɹ		ɻ	j	ɥ			
Hurbilkari albokari				ɻ		ɭ	ʎ	ʟ			

Eskuinean agertzen diren ikurrek kontsonante ahostuna irudikatzen dute, ezkerrekoek ahoskabea. Ilundutako eremuek ezinezkotzat harturiko artikulazioak adierazten dituzte.

Kontsonanteak (II)

KONTSONANTEAK (EZ-BIRIKARIAK)

Klikak	Inplosibo ahostunak	Eiektiboak
⊙ Biezpainkari	ɓ Biezpainkari	' Adibideak:
Horzkari	ɗ Horzkari/hobikari	p' Biezpainkari
! Hobikari/ hobioستeko	f Sabaikari	t' Horzkari/hobikari
≠ Sabai-hobikari	ɠ Belar	k' Belar
Albokari hobikari	ɠ Ubular	s' Igurzkari hobikari

DIAKRITIKOAK

o	Ahoskabe	ṅ ḍ	..	Ahots-arnaskari	ḃ ḁ	ṽ	Horzkari	ṭ ḍ
∨	Ahostun	ṣ ṭ	~	Ahots-karraskari	ḅ ḁ	ṽ	Apikari	ṭ ḍ
h	Hasperendun	t^h d^h	~	Mihi-ezpainkari	ṭ ḍ	ṽ	Lepokari	ṭ ḍ
ᵛ	Biribilduago	ḡ	ᵛ	Ezpainkaritu	t^w d^w	~	Sudurkaritu	ẽ
c	Ez hain biribildu	ḡ	j	Palatalizatu	t^j d^j	n	Askatze sudurkaria	dⁿ
+	Aitzinatu	ṽ	ʎ	Belarizatu	t^ʎ d^ʎ	l	Askatze albokaria	d^l
-	Atzeratu	e	ʃ	Faringalizatu	t^ʃ d^ʃ	ʎ	Askatze entzungarririk ez	d^ʎ
..	Erdiratu	ë	~	Belarizatu edo faringalizatu			ṭ	
×	Arteko-erdiratu	ë	⊥	Goratu	e (ɹ = igurzkari hobikari ahostuna)			
ı	Silabagile	ṅ	ṽ	Beheratu	e (β = hurbilkari biezpainkari ahostuna)			
˘	Ez-silabagile	e	ı	Mihi-erro aurreratua	e			
˘	Errotikotasun	ə ɑ	ı	Mihi-erro atzeratua	e			

Diakritikoak ikurraren gainean ezar daitezke ikur nagusia beherantz luzatzen denean, e.g. **ṅ**

Diptongoak

BEHERAZKOAK: /ai/, /au/, /ei/, /ou/, /oi/, /eu/

GORAZKOAK: /ia/, /ie/, /ua/, /ui/, /ue/, /uo/

<https://www.seeingspeech.ac.uk/ipa-charts/?chart=1&datatype=3&speaker=1>

Egitura

1. Soinua eta segmentu motak
2. **Fonemak**
3. Fonologia eta fonetika
4. Ortografia, ikur fonetikoak, eta fonologikoak

Fonema (I)

- Hizkuntza baten oinarrizko **soinu unitatea** da, ezaugarri multzo batek osatzen duena (**tasunak**).
- Fonemek hizkuntzen **inbentario fonologikoa**, eta, ondorioz, **soinu-sistema** egituratzen dute.
- Fonemak elkarren arteko **oposaketan** daude.
- Honakoa **komutazioaren** bidez erakuts daiteke.

Fonema (II)

- **Komutazioa (= trukaketa):** Hots segmentuak testuinguru berean agerraraztea, segmentuen arteko oposaketak edo oposaketa ezak agertarazteko:

Adibidez:	<i>zori</i> (txori)	-	<i>zuri</i> (txuri)
	<i>urde</i>	-	<i>urte</i>
	<i>zu</i>	-	<i>su</i>
	<i>ardo</i>	-	<i>arto</i>
	<i>ordu</i>	-	<i>ortu</i>
	<i>ere</i>	-	<i>ele</i>
	<i>hala</i>	-	<i>ala</i>
	<i>olha</i>	-	<i>olhã</i>

Fonema (III)

- Hizkuntzek fonema-kopuru mugatua dute.
- **Ezaugarriak / tasunak:** Segmentuen « osagarriak ».
- Elkarrengandik bereizteko edota **klase natural**etan biltzeko erabiltzen diren tasunak. **Ahoskamoduaren eta ahoskagunearen** aldetik zehazten dira.

Alofonoak

- Fonema batek **testuinguru** desberdinetan izan ditzakeen ahoskera desberdinak.
- Alofonoek ez diote hizkuntzari oposaketarik gehietzen.
 - *gasna, esne*
 - *dadin*
- Fonemaren itxura desberdin horiek (alofonoak) banaketa osagarrian dira
 - [s̺] eta [z̺]
 - [d] eta [ð]

Banaketa osagarria

- Fonema baten alofono jakin bat agertzen den kokapenetan ez da beste alofonorik agertzen, eta beste alofonoak agertzen diren kokapenetan ez da alofono hori agertzen.
 - [z̥]: kontsonante ahostun baten aurrean.
 - [s̥]: beste kokapen guztietan.



Egitura

1. Soinua eta segmentu motak
2. Fonemak
3. Fonologia eta fonetika
4. Ortografia, ikur fonetikoak, eta fonologikoak

Fonologia (I)

- **Zer da fonologia?**
 1. Fonologia **hizkuntzaren osagai** bat da: Esanahiak transmititzen dituzten **hotsen sistema egituratua** da.
 2. Giza-hizkuntzen **hots-sistema** hori aztertzen duen **ikerketa arloa**, hotsen **hautazkotasuna** eta haien arteko **oposaketak** ikertzen ditu.

Fonologia (II)

- Oharmenean igar daiteke:

« hay pilas *sansun* »

Hau ez da Jolibu!

Estiripitisa

Poisson / poison

Hizkuntza baten inbentario fonologikoak (hau da, fonemen bildumak) baldintzatzen du hizkuntza horren hiztunen oharmena.

Fonetika (I)

- **Zer da fonetika?**
 1. Hizkuntzaren hotsen **gauzatze fisikoa** da.
 2. Gauzatze fisiko hori aztertzen duen **ikerketa-arloa**, bai hotsen **uhinak** aztertuz edota hauen **ekoizpen** edo **hautematea** neurtzen dituela.

Fonetika (II)

- Fonetikaren barneko arloak:
 - 1. Fonetika akustikoa:** ahots-uhinak ikertzen dituen fonetikaren atala da.
 - 2. Fonetika artikulatorioa:** ahoskeran erabiltzen diren mugimendu eta keinuak ikertzen dituen fonetikaren atala da.
 - 3. Fonetika pertzeptuala/auditoriala:** ahotsa nola hautematen dugun ikertzen duen atala.

Egitura

1. Soinua eta segmentu motak
2. Fonemak
3. Fonologia eta fonetika
4. Ortografia, ikur fonetikoak, eta fonologikoak

4. Ortografia, ikur fonetikoak, eta fonologikoak

Hizkuntza baten **bereizkuntza fonemikoek bere isla grafikoa** izan ohi dute hizkuntzaren ortografian.

- **Ikur fonetikoak:** ahoskeraren transkripzioan hotsak grafikoki islatzeko erabiltzen direnak.

<ez baduzu> [eʃpaɯʃu]

- **Ikur fonologikoak:** fonemak islatzeko ikurrak:

<ez baduzu> /eʃbaɯʃu/

4. Ortografia, ikur fonetikoak, eta fonologikoak

Hizkuntza baten **bereizkuntza fonemikoek bere isla grafikoa** izan ohi dute hizkuntzaren ortografian.

- **Ikur fonetikoak:** ahoskeraren transkripzioan hotsak grafikoki islatzeko erabiltzen direnak.

<ez baduzu> [eşpauşu]

- **Ikur fonologikoak:** fonemak islatzeko ikurrak:

<ez baduzu> /eşbaduşu/

4. Ortografia, ikur fonetikoak, eta fonologikoak

Hizkuntza baten **bereizkuntza fonemikoek bere isla grafikoa** izan ohi dute hizkuntzaren ortografian.

- **Ikur fonetikoak:** ahoskeraren transkripzioan hotsak grafikoki islatzeko erabiltzen direnak.

<ez baduzu> [eʃpaɯʃu]

- **Ikur fonologikoak:** fonemak islatzeko ikurrak:

<ez baduzu> /eʃbaduʃu/